

# Gesto por la Paz

---

## *Son parte de nuestro ser*

Las víctimas son las grandes perdedoras de la violencia y, aún así, son capaces de darnos la primera razón para la paz. Las víctimas son las absolutas ausentes y, sin embargo, son quienes mejor representan lo que nunca debió ser. Las víctimas son las primeras en el epicentro del sufrimiento, pero siempre quieren ser las últimas que lo sufran. Las víctimas son despojadas de su integridad y, en cambio, son quienes más nos recuerdan el cuidado que hemos de dispensar a la dignidad de la persona. Una víctima es el fracaso más rotundo de la violencia. Porque quien se convierte en víctima se convierte también en un nuevo significado contra esa misma violencia que lo agredió.

La condición de víctima contiene el atributo de la generosidad. Aunque no lo hayan elegido, las víctimas dan mucho, al sufrir en su propio ser la parte más cruel del ataque que va dirigido contra toda la sociedad y su sistema de convivencia. Debemos reconocer que gran parte de nosotros no siempre lo hemos entendido así y que, por tanto, ha habido veces en las que hemos añadido dolor y desatención al camino cruel que han tenido que transitar.

Sin embargo, hoy queremos afirmar que las víctimas son parte de nuestro ser. Las hemos incorporado al significado de nuestra vida humana y de nuestra convivencia ciudadana. A través de sus relatos, las víctimas han contagiado de emoción a nuestra inteligencia y han cargado de razones a nuestro corazón. Sólo cerrar los oídos a su sufrimiento nos puede salvar de compartir el dolor con ellas. La pérdida irreparable de la víctima genera valor y sentido. Y es que la violencia nos golpea a través de ella, pero, una vez que existe, es la víctima la que nos interpela con más fuerza. Es la que se revela como una gran productora de sentido en la construcción de nuestro futuro.

Porque quien haya escuchado alguna vez alguna de sus experiencias sabe que ya tiene incorporado en su propio ser el valor de una narración indestructible para la defensa de la vida y de la convivencia pacífica.

# Gesto por la Paz

---

## *Gure baitaren zati dira*

Biktimak indarkeriaren galtzaile handienak dira, eta, hala ere, haiek bakean bizitzeko lehenengo arrazoia emateko gai dira. Biktimek ez dute ordezkorik, baina era berean, zer gertatu behar ez zen ordezkatzeko onenak dira. Biktimak sufrimenduaren lehenengoak dira, alabaina, sufritzen azkenak izan nahi dute. Biktimei euren osotasuna erauzi diete eta, hala eta guztiz ere, pertsonaren duintasunaz ardua gaitzen gogoratzen digute etengabe. Biktima, finean, indarkeriaren porrot hutsa da. Zeren biktima bihurtzen dena segituan bihurtzen baita indarkeria horrexen kontrako adierazle berria.

Biktima izateak eskuzabaltasuna dakar berekin. Haiek nahi izan ez duten arren, biktimek asko ematen dute, gizartearen eta elkarbizitzaren aurkako eraso bortitzena euren baitan sufritzean. Egia esan, gutako askok ez dute horrela sentitu; izan ere, eurek ibili beharreko minezko bidean, oinazea eta arduragabekeria erantsi diegu batzuetan.

Alabaina, gaur egun, biktimak geure baitaren zati direla esan dezakegu. Gure bizitzaren eta elkarbizitzaren gunera ekarri ditugu. Euren kontakizunak direla medio, biktimek gure adimena emozioz jantzi dute, baita gure bihotza arrazoiz bete ere. Euren sufrimenduaren aurrean belarriak itxiko bagenitu, ez genuke oinaze handi hori eurekin partituko. Baina biktimaren konpondu ezineko galerak adorea eta sena sorrarazten ditu. Hau da, indarkeriak biktimaren bitartez astintzen gaitu, baina beronek deitu egiten digu, indar handiagoz. Gure etorkizunaren senaren sortzaile aparta bilakatzen da bat-batean.

Euren bizipenak entzun dituenak badaki bere baitan narrazio suntsiezina baduela, hain zuzen biziaren eta bakezko elkarbizitzaren aterpea izango dena.